



GOAZEN ELURRETARA!

Zortziko txikian puntutan
egingo dute: ikasle bakoitzak
puntu bat abestuz.

Doinua: Hitz egin zionian B /
Astoa ikusi nuen B
Neurria: Zortziko txikia /
Lau puntuko txikia



1 _____
elur **dotorea**

zuri **kolorea**

da **paregabea**

beldur naiz **ordea.**

2 _____
jantzi dut **arropa**

elur bolak **bota**

sortu da **borroka**

ez zaigu **inporta.**

3 _____
eskularruekin

maldan behera **ekin**

lasterketak **egin**

trineoarekin.

4 _____
aldapa dago **ta**

gainera **igota**

beherantza **bota**

zuhaitzaren **kontra.**

5 _____
maldan goitik **behera**

lagunek **karrera**

sasien **artera**

kontuak **atera!**

6 _____
dizkigu **elurrak**

mendien **gailurrak**

jaisteko **beldurrak**

puskatu **hezurrak.**



7 _____
kuadrilla **kuadrilla**

ideia **ankerra**

elur-bola **gerra**

zaplako **ederra.**

8 _____

gerran **inguruan**

hartu dut **eskuan**

jo diot **buruan**

hasi da **orduan.**

9 _____

batak **besteari**

pilota **ugari**

apuntatu **adi**

irakasleari.

10 _____

prest dago **panpina**

botoiez **egina**

bufanda **zikina**

azenario **fin.**

11 _____

ta bi beso **oker**

ez du falta **ezer**

dago oso **eder**

urtuko da **laster.**

12 _____

denak **busti-busti**

izan dugu **aski**

nahi genuke, **noski**

elur eta **guzti.**

